



3 POLITIKA

Kataluniako egoerari buruzko mahai-ingurua

Bihar goizean, 11:30etik aurrera, Kataluniako egoerari buruzko gogoeta egiteko aukera izango da Manuel Lekuona kultur etxean. Xirimi-ri Elkarreak Kataluniako alderdi nazionalistetako kideak gonbidatu ditu 'Helburua independentzia: zein da bidea?' izenburu duen mahai-inguruan parte hartzera. CDCko Joan Manel Montfort, ERCko Pere Sabat, CUPEko Marcel Martinez eta PSCko kide ohi den Xavier Lecegui egongo zirela aurreratu zuten antolatzaileek baina aldaketaren bat egon daiteke.



Berrehundik gora herritar bildu ziren asteazkenean Okendo plazan, aurreko asteko ostiralean herriko emakume batek pairatutako eraso sexista salatze eta gaitzesteko.

4 ELKARRIZKETA

Zigor DZ: "Hasieratik jorratu ditugu festa erritmoak"

Esna izeneko lan berria aurkeztu berri du Esne Beltzak Durangoko Azokan. Jatorriz lasarteoriatarra den Zigor Lanprerekin, taldeko DJarekin, hitz egin dugu. Besteak beste, bosgarren disko honi buruzko gakoak aztertzeke. Zeresana eman duen "Sueños de color" abestiaren inguruko iritzia ere partekatu du.



Gaitzespen jendetsua Lasarte-Orian

Emakumeak salaketa jartzerako orduan arazoak izan zituen

Herritar andana bildu zen Okendo plazan asteazken arratsaldean, herriko emakume batek pairatutako eraso sexista salatzeke elkarretaratzean. Aurten hainbat eraso izan dira herrian.

Berrehundik gora lasarteoriatar gerturatu ziren Okendo plazara asteazkenean, pasa den abenduaren 4ko gauean herriko emakume batek pairatutako eraso sexista salatzeke. 'Eraso sexistarik ez! Nahikoa da! Gora borroka feminista' lelodun afixa baten inguruan bildu ziren denak.

Lasarte-Oriako Talde Feministako kide Ane Labakak jakinarazi zuenez, ostiral gaueko 4:00ak aldera gertatu zen eraso. Herriko emakumea etxerantza zihoan, gizon bat atzetik segika zuela ohartu zenean. Irainka eta gorputzarekin keinuka aritu zen gizo-

nezkoa, "harrotasunez". Labakak aipatu zuenez, emakumeak, koldatu beharrean, aurre egin zion erasotzaileari; handik minutu batzutura agertu ziren bertara udaltzainak.

"Erasoak ez dira fisikoak bakarrik"

"Herriko talde feministako kideok salatu nahi dugu trabak jarri zizkiola ertzaintzak emakume erasotuari, salaketa jartzera joan zenean", adierazi zuen Labakak. "Erasotzaileak emakumea fisikoki ukitu ez zuenez, badirudi ez dela zilegi gertatu zena erasotzat hartzea. Guk, gure aldetik,

aldarrikatu nahi dugu erasoak ez direla fisikoak bakarrik eta, are gehiago, eraso horiek ezin direla sailkatu horiek pairatu ez dituztenek ezarritako usteko larritasun mailaren arabera sailkatu".

Horrez gain, Labakak gogorarazi zuen asteazkenean ez zela izan gisa horretako erasoak salatzeke lehenengo elkarretaratzea: "Behin baino gehiagotan elkartu behar izan dugu jazo-tako eraso matxistak salatu eta gaitzesteko. Gainera, herrikan kanpo ere gertatu dira antzeko erasoak azkenaldian: Barakaldon, Eibarren, Donostian... Nazkatuta gaude, amorratuta eta haserre". Labakak salatu zuen "sistema oso bat" dagoela eraso horien atzean, "gizartea egituratzen duen sistema heteropatriarkala" hain

zuzen. "Emakumeok erasotzak izateko beldurrez bizitzera kondenatu eta gizonei gu erasotzeko zilegitasuna eskaintzen die sistema horrek", gaineratu zuen.

Aldarrikapen bat ere egin zuen Labakak, talde feministaren izenean: "Gu ez ginen beldurtuta bizitzeko jaio; kaleak eta gauak gureak ere badirenez, etxerako bidea lasai eta pausu irmoz egin nahi dugula aldarrikatzera gatoz. Autodefentsa feminista dugu tresnatzat horretarako. Ostiraleko gertakariak, gainera, autodefentsa horren eraginkortasuna bermatu baino ez du egin. Nahikoa da! Erasotzaileak ez!".

Bertaratutako txalo zaparrada artean amaitu zen ekitaldia; indarkeria matxistaren gaitzespen jendetsua.

EGUBERRIKO EKINALDIA

ABENDUAREN 9tik ABENDUAREN 30era

**LORTU GABONETAKO
SORTA BAT ATERPEAKO
SALTOKIETANI!**

Zorionak eta urte berri on!!



Neure kabuz



Asier Odriozola

Hauteskunde kanpaina

Ez dira gutxi izan modu batera edo bestera jarraitu ahal izan ditudan hauteskunde kanpainak. Horrek bi gauza esan nahi ditu: azken ia 40 urtean asko izan direla botoa ematera joateko izan ditugun aukerak (ez nahi beste hala ere) eta bestalde, adin bat badudala dagoeneko. Lana-gatik ere hauteskunde gauen berri ematea egokitu zait maiz, ez ordea alderdi bati segika kanpainaren ingurukoak kontatzea. Oraingo honetan ordea, bai. Nik askotan esaten dut kazetariaren ofizioak gauza asko dituela txarrak baina onak ere bai. Horien artean, ofizio berean aritu eta oso gauza ezberdinak egiteko aukera ematen duela. Natorren lehen hasitako hausnarketara.

Partiduek ez dituzte dagoeneko sasoi bateko mitin jendetsuak egingen. Garai berrietan gabilta, berez, berri izateari uzten ari zaion garaietan, hain da bizkorra gizartearen antolaketa eta ibili berriak daraman abiada!! Komunikabideak, geroz eta ugariagoak eta elkarrekiko ezberdina direnak, bihurtu dira helburu bakar eta haien bitartez heldu nahi dute alderdietako liderrek jendearengana. Lauzpabost ideia garbi erabaki eta haiek etengabe aireratzen dituzte, balizko botoemaileari iritsiko ote zaizkion esperantzarekin. Bitxia da estrategia eta absurdoa ere bai egunero partidu beraren atzetik ibiliz gero, baina eraginkorra seguru asko. Inoiz, politikoak eta komunikabidetako ordezkariak bakarrik egoten gara. Horregatik, eta barkatuko didazue aldarrikapena: mitin minez nago. Mitin bat nahi dut: politiko batek, berdin zait nork, jendea eserlekuetatik altxako duena. Uste dut denboran kateatuta geratu naizela!

Zorion agurrak



Maitane
Gaur urtebete zaharrragoa zarela ospatzen dugu, baina ez larritu, hobeto zaude eta.




Merche, Rosarito, Milagros eta Manoli
Zorionak 45. urtean jaioetako Lasarte-Oriako neska martxosoei. Lagun eta familien partetik.




June
Zorionak printzesa! Iritsi da zure eguna! 6 muxu potolo aita, ama eta familia osoaren partetik.



Aitor
Zorionak zure hirugarren urtebetetzearn pitxin, oso ondo pasa!!! Amatxo eta aitaxoren partez.



Leire
Zorionak zure urtebetetzearn!!! 7 txokolazteko muxu Maialen aiton-amona eta familiaren partetik.



Aritz
Zorionak zure zortzigarren urtebetetzearn txikitin!!! Zortzi muxu pottolo. Aita, ama eta Eneko.



Zuriñe
Zorionak polita! Ondo pasa eta disfrutatu zure 9. urtebetetzearn! Muxu handi bat etxekoan partetik!



Nahia
Zorionak printzesa zure egunean eta 6 muxu potolo etxeko guztien partez.




Josu
Zorionak zure seigarren urtebetetzearn eta muxu handi bat etxekoan partetik.



Pau
Bat, bi eta.... hiru!! Muxu handi gurasoen partez. Zorionak / Felicitats!



Miriam
Zorionak printzesa. Bi muxu handi. Aitaxo, amatxo eta Iratiren partez.



Nora
Zorionak guapetona, disfrutatu urtea!!



Iزارo
Zorionak politte! 6 muxu handi etxekoan partetik, maite zaitugu.

Azoka txikia

Higiezinaren Eskaintza

- Lokala saltzen da Uistin kalean, 11 zenbakia. Bi pisu ditu: Igoa 64 metro karratu, baxuak 72 metro karratu. 666 409 194. Herriko bikote gazte bat alokairuko pisu txiki edo estudio baten bila dabil. 699 377 564.

Salerosketa

- Baserriko kutxa salgai. Egoera onean. 688615916

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da arratsaldez lan egi-

teko, 15:00etatik aurrera. 639 740 900.

- Jende nagusia zaintzeko, baserrian lan egiteko edota beharrezkoa den lanetarako prest nago. Ronald. 677342358
- Gizona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, externo edo interno gisa lan egiteko eta baita tabernetan kamarero gisa jarduteko ere. 677 34 23 58.

Bestelakoak

- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Ibai Lopez Calero, abenduaren 1ean.
- Ibai Taboada Otero, azaroaren 26an.
- Cristian De los Angeles De los Santos, azaroaren 25ean.

Heriotzak

- Gabriela Alkorta Zabala, abenduaren 7an, 90 urte zituela.
- Victor De Hoyos Saldaña, azaroaren 29an, 79 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 11 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 12 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Igandea, 13 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 14 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 15 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 16 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 17 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea

LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri
Erredakzioa:
Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galarzi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

KATALUNIA



Xirimiri elkarteko kideak mahai-inguruaren kartela eskutan dutela.

Kataluniako askapen prozesuari buruzko mahai-ingurua

Bihar egingo dute, Xirimiri Elkarteak antolatuta

Pil-pilean dagoen gai baten inguruan gogoeta egiteko eta eztabaidatzeko aukera egongo da bihar Manuel Lekuona kultur etxean. Kataluniako alderdi nazionalistetako kideak gonbidatu ditu Xirimirik goizeko 11:30etan egingo duten mahai-ingurura.

TXINTXARRI

Bartzelonako Villafranca del Penedes herriko zenbait ordezkari etorriko dira Lasarte-Oriara, Kataluniako askapen prozesuari buruzko gakoak ematera.

‘Helburua independentzia: zein da bidea?’ izenburu duen mahai-inguruak egungo egoera politiko aldagarria izango du mintzagai. Irailaren 27ko hauteskondeek utzi duten ikuspegia aztertuko dute, eta etorkizunera begira

eman beharreko urratsei buruz eztabaidatuko dute.

Lau hizlari gonbidatu dituzte Xirimiri Elkarteko kideek. CDCKo Joan Manel Montfort, ERCKo Pere Sabat, CUPEko Marcel Martinez eta PSCko kide ohi den Xavier Lecegui.

Antolatzaileek Xirimiri Elkartean egindako prentsaurrekoan azaldu dutenez, aldatetaren bat egotea posible da, baina ziurtzat eman dute aipatutako alderdietako ordezkariak egingo direla.

Momentu erabakigarria

Inork ez daki ziurtasun osoz zer gertatuko den Katalunian. Artur Mas presidentegaiaren inbestidura bitan ukatu ondoren, urtarilaren 9ra arteko epea dute akordioa lortu ahal izateko. Berriro ere hauteskundeak egin beharko dituzte, bestela.

CUPEk asanbladan erabakiko du hilaren 27an zer egingo duten azkenik.

Alderdi nazionalistek gehiengoa lortu zuten parlamentuan, eta askapen prozesua irekiko zuen testua onartu zuen mahaiak. Auzitegi Konstituzionalak, ordea, ez du onzat eman. Argi dagoena zera da: Kataluniako etorkizunarentzako momentu erabakigarria dela.

AMARAUN KLUBA

Maitasuna haurrekin lantzen

Amaraun Klubeko lagunek ipuinen bitartez haurren emozioak lantzeko ekimenarekin aurrera jarraitzen dute. Astelehenean, abenduaren 14an, 18:00etatik aurrera, hiruhileko honetako azken saioa izango da Amaraun Ludotekan. Honetan etxeko txikiek maitasuna landuko dute.

Ipuin-kontalari saio hauek hiru eta lau urteko haurrei zuzenduak dira. Helburua istorioari esker sentimenduak landu eta ezagutzea da. Horretarako jolas, abesti edo poesiaz baliatzen dira. Aurreko bi saioetan, haserrea eta beldurra izan dira landutako sentimenduak.

ELKARTASUNA

Kontzertu solidarioa gaur arratsaldean Brigitarren komentuan

Andatzazpi Elizabarrutiko Misio taldeak antolatuta Ben Younech (Tanger-Ceuta) proiektuaren aldeko emanaldia izango da gaur 19:00etatik aurrera Ama Brigitarren komentuko kaperan.

Neskur Pagola txalapartaria, Brigitarren komentuko Ahizpa Afrikarrak, Xumela Abesbatza eta Semblante Rociero korua izango dira elkartasun kontzertu honetan parte hartuko duten taldeak.

Proiektuaren aldeko dirua biltzeko, 0 ilara izango da eta 5 euro balioko du.

LANAK

Orsa enpresak burutuko ditu herriko asfaltatze lanak



Lasarte-Oriako Udalak Orsa enpresari adjudikatu dio asfaltatze-kanpaina eta lanen aurrekontua 355.134 eurokoa dela jakitera eman du Udalak.

Lan hauen bitartez, Kale Nagusia (Oztaraneko eta Tajamarreko biribilguneen arteko tartea), Pintore, Juan de Garai, Pablo Mutiozabal, Geltoki eta Iñigo de Loiola kaleetako, Atsobakar etorbideko eta Sasoeta ibilbidea asfaltatuko dira.

Errepideak aldatzen hasi aurretik zuinketa akta sinatu behar dute enpresak eta Udalak. 5 urteko bermea izango dute lanek eta 23 egunetan burutu beharko ditu enpresak, eguraldiak laguntzen badu beti ere.

Udalak nabarmendu duenez pneumatiko birziklatuekin egindako nahastura erabiliko dute asfaltoaren konposatuan, “iraunkorrak” izan dadin.

Kurduak Lasarte-Oriako hizkuntza-politika ezagutzen

Asteazken goizean, Garabide elkartearen eskutik, Kurdistango hizkuntza aktibista ordezkari bat izan zen Lasarte-Orian. 5 lagunek taldea euskararen berreskurapen esperientzia ezagutzera etorri da Euskal Herrira eta bidai honetako bisiten artean, Lasarte-Oriako txangoa izan da.

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkateak, Jon Antxordoki Euskara batzordeko lehendakariak eta Iñaki Arruti eta Aitor Unanue euskara zerbitzuko teknikariak egin zieten harrera Udalean.

Jesus Zaballosek ongi etorria egin zien euskaraz eta Jon Antxordokik ere kurduek egin zituen hitz batzuk. Jarraian Iñaki Arrutiren eskutik Udaleko euskara batzordearen lana ezagutu zuten.



Lasarte-Oriako Udal ordezkari eta teknikariak, kurdien ordezkariak eta Garabide elkarteko kideak asteazkeneko harreran.

Ostean, Udal euskaltegira hurbildu ziren bertan nola lan egiten den ikustera. Gainera ikasle batzuekin bildu eta bi taldeek bai kurduek, baita euskara ikasleek ere bestearen hizkuntzan oinarritzeko hitz batzuk ikas-

teko aukera izan zuten, kaixo edo zer moduz, esate baterako.

Herriko bisitari amaiera emateko, Ttakun kultur elkartean izan zen taldea. Bertan Lasarte-Oriako Udalak elkartarekin batera lantzen dituen

proiektuak ezagutu zituzten, batez ere, aisiako ekintzak eta Txintxarri aldizkaria.

Bidaide programa

Bidai hau Garabide elkarteak duen Bidaide programaren bai-

tan dago kokatua. Honen bidez, hizkuntza gutxituak dituzten herrialdeetako kideak etortzen dira euskararen berreskurapen esperientzia partekatzerako. Haien ekimenak ezagutu eta modu eragilean euskalgintzaren esperientzia nazioartean zabaltzea ere du helburua.

Komunitate kurduak euren hizkuntza biziberritzeko egiten duen lanak berebiziko garrantzia du beste hizkuntza minorizatuarentzako eredu gisa eta baieztatu daiteke normalizazio-prozesua horrek eragin eta proiektio handia duela herrialdeetako eta inguruko gainontzeko komunitate gutxiagotuentzat. Horregatik Garabidek lehentasunezko eragin-esparrutzat du Ekialde Erdiko komunitate kurdua eta Bidaide programaren parte hartzerako gonbidatu ditu.

Zigor Lanpre 'DZ' Esne Beltza taldeko DJa

“Hasieratik jorratu ditugu festa erritmoak”

Zazpi urtetan bosgarren diskoa atera berri du Esne Beltzak. Udarar Japonian, Alemanian eta Katalunian izan dira, besteak beste, eta Durangon aurkeztu dute ‘Esna’ lan berria. Zigor Lanpre, taldeko DJa, jatorriz lasarteoriatarra da eta azken bi urte hauetan gertatukoaz aritu da, “Sueños de color” single-ak sortutako polemika barne.

MARTIN VICIOSO

Durangoko Azokan aurkeztu dute *Esna*, Plateruena aretoan. Ken Zazpirenarekin batera, azokako disko arrakastatsuen izan da.

Bira bukatu berri duzue. Nola joan da?

Ondo. *Gora* diskoaren amaiera izan da. Lan bakoitzari bi urte eskaintzen dizkiogu gutxi gora behera, eta kontzertu hauekin etapa hori amaitutzat eman dugu. Une gogorrak igaro ditugu azken aldian. Gure manager Amaia Apaolaza zendu zen, formazio aldatetarik izan ditugu eta taldekide batzuk guraso bihurtzeak musikarako denbora asko mugatu digu.

Japonian eta Alemanian izan zarete, besteak beste.

Japoniara formatu txikian joan ginen. Taldekide asko gara, eta oso garesti ateratzen da ekipo osoa mugiaraztea. Aretoetan formatu murriztuan jotzeko aukera sortu zen, eta hala egin genuen. Oso ondo atera zela uste dut.

Harrera bikaina jasotzen dugu Estatutik ateratzen garenean eta ezagutzen ez gaituzten lekuetan jotzen dugunean. Trikitixarekin eta egiten ditugun estiloen nahasketarekin harrituta geratzen dira. Esaterako, Alemaniako Telebista Nazionalak grabatu gintuen jaialdi batean jotzen ari ginela eta, behin bukatuta, gehiago aritzeko eskatu ziguten, ikusleak oso gustura baitzeuden.

Apiriletik urrira ez duzue atsedetik izan.

Normalean urtea antzeko moduan antolatzen dugu. Martxoan edo apirilean hasten gara kontzertuak ematen eta irailean edo urrian bukatzen dugu. Taldekide guztiek lana eta eginbeharrak ditugu, eta ezin gara urte osoan han eta hemen musika jotzen ibili. Deskantsua ere nahi izaten dugu, hurrengo urtea planifikatu ahal izateko. Diskoa, normalean, bira amaitzean atera ohi dugu, Durangoko Azokari begira.

Bira bukatu berri duzue. Kanpoan egon zarete aprobeztatu duzue kanta

berriak prestatzeko?

Bai konposaketa baita grabaketa ere biraren barnean egin ditugu, irailean. Diskoak bi zati izango ditu. Lehena orain atera da, Durangon. Askotan, kosta egiten zaigu hamalau edo hamabost kantako disko osoa sortzea. Zeregin asko uztartu behar ditugu, eta ez da erraza hainbeste kanta behar bezala lantzea. Epea zabaldu dugu eta lasaia ibili gaitezke. Bigarrena, berriz, maiatza aldera aterako da. Eguno musika kontsumitzeko erak ere honetara bultzatu gaitu.

Zer berri aurkituko dugu disko honetan?

Polemika piztu duen runba egin dugu. Egia esan, ez dut oso ondo ulertzen zergatik. Esne Beltzak betidanik jorratu ditu antzeko erritmoak. Reggaetoia, musika balkanikoa, kunbia... nahi izan duguna egin dugu beti. Gainera, Xabi Solanok La Pegatina taldearekin ‘No Tinc Remei’ eta ‘Ara ve lo bo’ runbak egin zituen bere garaian, eta oraingoan Esne Beltzarekin bat egiteko gogoa piztu zitzaion.

Bestalde, lehenengo disko honetako kantak barrura begirakoak dira gehien bat. *Gorak* kontzeptu sozialagoa zuen. Herri harresia, presoak bakardadea, botere erlazioak... halako gaiak jorratu genituen. Oraingoan, berriz, guri gertatutakoa islatu dugu. Taldeko joan-etorriak, aitatasunak eta Amaia Apaolaza zendu izanak asko eragin gintuen.

Bigarren CDak lehenaren hariari jarraituko dio?

Oso irekia utzi dugu kontzeptua. Ideiak baditugu, baina ez diegu formarik eman oraindik. Azaroaren 30ean bigarren CDan azalduko den kanta bat aurkeztu dugu jada, Sare mugimenduarentzat egindakoa, alegia.

Diskoaren aurkezpenaren erdian polemikaren zurrumbiloan sartzea ez zenuten espero.

Nik ulertu eta errespetatu egiten dut batzuek gustuko ez izatea gure musika.

Guk espero ez genuena zera zen: Esne Beltza runba egiteagatik kritikatu izatea. Nahasketa handiko musika



Zigor DZ Esne Beltzarekin eta Fermin Muguruzarekin aritu da, besteak beste.

egin dugu beti. Arraroa, bat batean, rock-a edo erritmo gogorrek egitea litzateke.

Kantaren letra jipoitzea ere ez dugu oso ondo ulertu. Konpromiso politikoa beti erakutsi dugu gure lanetan, baina ez ditugu beti gai politiko-sozialak jorratu. Gainera, musika talde gehienek antzeko jokatzeko dutela esan-gogoa nuke.

Zer esan dezakezu *Esnako* kolaborazioei buruz?

Adibidez, Zoo valentziarrak lehengo urtean ezagutu genituen. Haiekin batera jo genuen eta asko gustatu zitzaizkigun. Katalanez egiten dute, eta beste hizkuntza ‘minoritarioak’ gure diskoan txertatu nahi genituen. Green Valley-eko Anderrek ere parte hartu du. Xabi haiekin kantatutakoa zen, eta egiten duten reggae gozo hori oso gustuko dugu.

El Canijo de Jerez abeslariarekin egindako kolaborazioa ezustekoa izan da. Solanok La Pegatinarekin batera abestu zuen Gernikan. Talde katalaneko Ruben Sierra ‘El Canijo’-ren laguna da, eta Xabik Los Delinquentes taldea gustuko du. Hortik atera zen ideia.

Kosta egiten da nahasketa berriak aurkitzea?

Esne Beltzak ez du estilo berririk asmatuko. Beti jolastu izan ohi dugu gustatzen zaizkigun musika horiekin. Alde horretatik, noski zaila dela nahasketa berriak aurkitzea, baina esan beharra dago hori ez dela gure lehentasuna. Esaterako, disko honetan runba egin dugunean, ez da izan propio bilatu dugulako. Aukera sortu eta hari eutsi genion.

Betidanik eduki dugu reggae/ska kutsua. Nahiz eta gero egiten dugun guztiak

Esne Beltzaren zaporea hartzen duen.

Talde gutxi iristen da hainbeste lan argitaratzea gaur egun. Zein da zuen arrakastaren gakoa?

Elkarbizitza ezinbestekoa da musika talde batean. Ordu eta bidai asko igaro behar ditugu elkarrekin, eta familia txiki edo lagunarte batek bezala funtzionatzen dugu askotan.

Bitzita laborala, musikala eta pertsonala uztartzea oso garrantzitsua da. Esne Beltzak, finean, ezin du asko bidaiatu eta hainbat kontuengatik mugatuta gaude, eta jakin behar dugu nor garen eta zer egin dezakegun.

Diskoaren diseinua deigarria da.

Luis Toledo diseinatzailea Sonde3 management enpresarekin egin genuen bileran izan zen. Hark proposamena prest zuen. Prozesu osoa oso interesgarria iruditu zitzaigun, izan ere, gure musika entzun eta horren arabera artelana egin zuen. Gure kantak koloretsuak zirela esan zigun, eta hori ez zetorren bat orain arteko diseinu zuri-beltzekin.

Behia zen, gehien bat, erabiltzen genuen animalia gure diseinuetan. Oraingoan, berriz, lehoia erabiliko dugu, gure musikarekin harreman handiagoa duela uste dugulako. Reggae-arekin identifikatu izan da beti, eta guk badugu puntu bat. Euskal Herrikan kanpora, esaterako, azal hau errazago identifikatu dezakete guk egiten dugunarekin. *Gora* laneko azala ikusita, batek pentsa dezake ‘hardcore’ taldea garela...

2016 urterako zein da zuen

intentzioa?

Durangon diskoa aurkeztu eta Viana Rock jaialdian arituko gara. Printzipioz Nafarroan aukera gutxi izaten dugu jotzeko, eta proposamen erakargarriak ekartzen dizkigutenean, baietz esan ohi dugu. Durangokoa Plateruena izan da. Ahotsenean ez genuen jo nahi oraingoan. Askok gara eta hiru kanta soilik jotzeko asko unatzen gara.

Martxoan edo apirilean berriz jarriko gara martxan. Aretoetan pare bat kontzertu egingo ditugu Euskal Herrian, eta gero Estatura aterako gara. Formatu horretan ez dugu gehiegi jo nahi etxean, gero plazetan denbora asko igarotzen dugu eta.

Kukai Dantza taldearekin ere aritu zara Adiskideak emanaldian.

Lan eginda nengoen haiekin lehenagotik eta oso gustura aritzen naiz. Halaber, Jon Maya dantzariak kulturarekiko duen ikuspegia erakargarria egiten zait. Gauza ezberdinak egitea gustatzen zait. Esne Beltza da nire proiektu nagusia, baina ahal bada, beste ekimen interesgarrietan parte hartzen saiatzen naiz.

Getxon eta Victoria Eugeniaren arrakasta handia izan genuen. Adiskideak emanaldia musika zuzeneko baten antzekoa da. Hau da, euren dantza onenak aurkezten dituzte, bakarrik egin beharrean.

Victoria Eugenia bezalako auditorio baterako kontzertuak desberdin prestatzen dira?

Victoria Eugeniaren pare bat alditan izan naiz. Xabi Solanorekin batera trikitixa bilkura batean, eta Mikel Laboari egindako omenaldian Makalarekin elkarlanean.

Victoria Eugeniak magia du; ez da kaleko ‘bataila’ horren antzekoa. Hala ere, nik lana egiteko era nahiko definitua dut eta ez dut asko aldatzen. Jendea ez da oraindik ohitu DJ bat halako guneetan entzutera, nahiz eta instrumentu honek izugarriko aukerak ematen dituen musika sortzeko garaian.

Etorkizunean Kukai-rekin emanaldiren bat egiteko asmoa duzu?

Ez dago nire esku. Haiek jarri ohi dira nirekin harremanetan, eta libre baldin banago, ni prest.



Rafaela Romero herriko PSE-EEko kideekin izan zen asteazkenean larrosak banatzen.



Marian Beitialarrangoitia, Kongresurako Gipuzkoako EH Bilduko zerrendaburuak eman zuen hitzaldia

Lasarte-Orian ere, Estatuko hauteskundeak

Alderdi ezberdinek ekintzak burutuko dituzte herrian

Abenduaren 20an, Estatuko Kongresu eta Senatua eratze-ko hauteskundeak egingo dira. Abenduaren 4an hasi zen kanpaina eta ekintza ugari aurrera eramanez, alderdi guztiak herritarren bozken bila ari dira.

Abenduaren 4an, Estatuko Kongresu eta Senatua eratze-ko hauteskunde kanpaina hasi zen eta gure herrian ere antzeman zen alderdi ezberdinak kalera atera baitziren kartelak itsastera.

Larrosa banaketa

Bestelako ekintzak ere izan

dira, PSE-EEko Rafaela Romero Kongresurako hautagai-zerrendako bigarren kideak eta herriko alderdikideek asteazkenean azokan larrosak eta beste objektu batzuk banatu zizkieten herritarrei.

EH Bildu

Atzo arratsaldean, berriz, EH Bildu alderdiaren ekitaldia

izan zen Manuel Lekuona kultur etxean.

Marian Beitialarrangoitia Kongresurako zerrendaburuak, Oskar Matute bozeramailea eta Naike Diez zerrendakidea izan ziren. Haustura demokratikoa aldarrikatu zuten, eta urte hauetan Madril en egindako lanari jarraipena emateko desioa erakutsi zuten.

Txorizo jana

Bestetik gaur, Podemos-Ahal dugu alderdiko kideek txorizo jana antolatu dute 18:00etatik aurrera Okendo plazan.



EAJko kideak kartelak itsastera atera ziren kanpaina hasierarekin bat.

EAJ

Bertan izango dira Kongresu eta Senaturako zerrendaburuak diren Nagua Alba donostiarra eta Josetxo Arrieta

irundarra, hurrenez hurren. Txorizoa dastatzeaz gain, herritarrek galderak egiteko aukera ere izango dute.



Urgentziazko gaiak Udaltzarrean

Ohiko udaltzarra izan zen asteazkenean. Honetan, urgentziazko bi gaia jorratu ziren eta EH Bilduren galderei erantzun behar izan zien Gobernuak.

Aurreko batzarren aktak onartu ostean, udal-ordenantze-tako 20. tasan aldaketa onetsi zuten. Ordainketa hori 6 zatitan egiteko aukera izango da beraz.

Bestetik, abenduaren 20ean egingo diren Estatuko Kongresua eta Senatua osatzeko hauteskundeetako 7B mahaiko zozketa berriro egin behar izan zen, mahai horretako bost kideren erreklamazioa onartu baititu hauteskunde batzordeak.

EH Bilduren galderak

Azkenik, alderdien galdera eta erreguetan, EH Bilduk bakarrik hartu zuen hitza.

Urtea amaitu baino lehen aurrekontuak onartuko ez direla ikusirik, zirriborroa noiz egongo den galdetu zuen. Atsotakar zaharren egoitzako eskualdatzea nola dagoen jakin nahi izan zuten, Foru Aldundiak 2016ko

aurrekontuetan horretarako dirua gorde du eta.

Jesus Zaballos alkateak Gobernuaren izenean erantzunez, aurten aurrekontuan onartzeko epeak beteko ez direla ikusirik, lehenik 2015 urtea nola amaitzen den ikusi eta horren arabera atal guztiak aurrekontuen zirriborroa egitea eskatuko duela jakitera eman du. Hori horrela izanik, prozesu guztia martxoan amaitzea gustatuko litzaiokeela aipatu zuen.

Atsotakarreko zaharren egoitzaren harira, Foru Aldundiak egoitza bere gain hartzeko, Udalak CLECEk eskaintzen duen zerbitzuaren berri ematen duen txosten bat aurkeztu behar duela aditzera eman zuen, baita arazo bat dagoela ere, CLECEk ez baitu eskatutako informazioa ematen.

Horregatik, Udalak datu horiek eman arte, CLECEri fakturarik ordainduko ez diola jakitera eman zuen alkateak.

Era berean, Foru Aldundiak jasotako partidari buruz ezer ez dakiela aipatu zuen.

HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

Iratxeren
altzari-denda

Josebaren
gimnasioa

Aitorren
okindegia

Elsaren
fruta-denda

Lauraren
zapata-denda



LABURRAK.-

Beltzak Errugbi Eskolak proiektu solidario baterako kamisetak salduko ditu igandean Michelinen

10 eta 12 urtez azpikoen errugbi eskolak igande honetan bilduko dira Michelinen, 10:00etatik aurrera. Hernani (A eta B taldeak), Bera Bera, Atletico San Sebastian eta Beltzak (A eta B) taldeek hartuko dute parte topaketa horretan. Horrekin batera, Beltzak eskolako kideek jakinarazi dute kamiseta solidarioak erosi ahaliko direla Michelinen bertan, 8 euroko prezioan. Clover SL enpresarekin batera ari da herriko taldea ‘Amigos Solidarios ORG’ egitasmoan parte hartzen; salmenta horretan bildutako dirua Ugandan eskola bat erakitzera bideratuko da.

Bestalde, Ohorezko B mailako Babyauto Zarautz taldea garaipenaren bidera bueltatu zen pasa den larunbatean. Vigoko Blusens taldearen bisita jaso zuten Zarauzko Asti zelaian, eta gogotik izerditu ostean 43-29 irabazi zuten. Ander eta Xabier Rekondo anaiak, David Vega eta Julen Aristorena herritarrek parte hartu zuten norgehiagokan.

LOKEko judoka kadete eta infantilak bikain Burgoseko Kopan

Maila oso txukuna eman zuten LOKEko kadete eta infantilek Burgosen. Ander Garrido, Unai Posada, Jon Herrero, Garikoitz Mena eta Yeray Mendibe aritu ziren kadete mailan. Garridok lortutakoa izan zen emaitzarik onena: Bigarren postua eta zilarrezko domina eskuratu zituen, txapelketa bikaina egin ostean.

Igandean infantilen txanda izan zen. Jesus Curielek lehen hiru borrokaldiak irabazi zituen, baina finalurrekoetako eta brontzeagatik jokatzekoak galdu egin zituen. Gorka Aristegi prestatzaileak nabarmendu du esperientzia hartzeko baliagarria izan dela pasa den asteburuko txapelketa. Pauen (Frantzian) izango dute hurrengo hitzordua infantilek, hilaren 19an.



Axier Arteagak 18-14 hartu zuen mendean Eneko Labaka,Amezketako Larrunarri pilotalekuan

Amezketako Larrunarri pilotalekuan aritu zen 19 urteko herriko pilotari gaztea abenduaren 8an, herri horretan antolatutako pilota desafioan jokatzeko. Ioritz Arrieta hernaniarraren aurka neurtu behar zituen indarrak, baina 24 urteko pilotariak ez zuen jokatu azkenean, min hartuta baitzegoen, eta Albizturreko Eneko Labakak ordezkatu zuen.

‘Oraina geroaren aurka’ zen desafioaren izena, eta horixe bera erakutsi zuen Arteagak, etorkizun paregabea duela aurretik, 18-14 gailendu baitzen Labakaren aurrean. Bankoa-DV txapelketa entzute-tsuko finalurrekoak jokatu ditu bihar Donostiako Atano III.a pilotalekuan, 17:30ean, Daniel Murgiondo azpeitiarrarekin bikote eginez. Andoni Mendingueta eta Jon Olaizola izango dituzte arerio.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 12
San Jose Obrero, Irun, 11:00etan
Dunboa Eguzki CD - Ostadar SKT
Kadeteen Ohorezko maila, 13. jardunaldia.

Michelin, 14:45ean
Ostadar SKT - Sporting de Herrera
Kadeteen I. maila, 13. jardunaldia.

Michelin, 16:10ean
Ostadar SKT - Kostkas KE
Jubenilen Ohorezko maila, 13. jardunaldia.

Michelin, 18:00etan
Ostadar SKT - Sporting de Herrera
Erregionalen I. maila, 13. jardunaldia.

Urnieta, 18:00etan
Urnieta KE - Ostadar SKT
Emakumezkoen lurralde maila, igoera fasea, 1go jardunaldia.

Mintxeta, Elgoibar, 18:30ean
Elgoibar CD - Texas Lasartearra
Erregionalen I. maila, 13. jardunaldia.

Igandea 13
Martutene, Donostia, 12:30ean
Martutene KE - Ostadar SKT
Errendimenduko infantil txikiak, 3. jardunaldia.

Michelin, 13:00ean
Ostadar SKT - Beasain CD
Infantilen Ohorezko maila, 11. jardunaldia.

Azkoagain, Oñati, 16:30ean
Aloña Mendi KE - Ostadar SKT
Erregionalen Ohorezko maila, 14. jardunaldia.

Berio, Donostia, 17:30ean
Santo Tomas Lizeoa KE - Ostadar SKT
Jubenilen I. maila, 13. jardunaldia.

SASKIBALOIA.-

Saskibaloia garaile

Giro bikaina abenduko zubiko lagunarteko txapelketan

Ikuskizun paregabea eta kilate askoko saskibaloia eskaini zuten emakumezko infantil mailako Euskadi, Galizia, Gaztela-Leon eta Madrilgo selekzioek abenduko zubian zehar. Madrilek irabazi zuen, baina egunotako garaile nagusia saskibaloia izan da zalan-tza izpirik gabe.

IÑIGO GONZALEZ

G abonetako festetan zehar Espainiako txapelketa jokatu dute emakumezko infantil mailako selekzioek. Bertara ongi prestatuta iristeko, lagunarteko txapelketa bat jokatu zuten Lasarte-Oriako kiroldegian abenduko zubian. Euskadi, Galizia, Gaztela-Leon eta Madrilgo selekzioak aritu dira nor baino nor gehiago kantxan, maila oso altuko saskibaloia eskainiz ikusleen gozamenarako. Madrilek irabazi zuen txapelketa azkenean, Gaztela-Leon 60-59 mendean hartuta.

“Talde denek oso maila altuko saskibaloia eskaini dute, Madril eta Gaztela-Leonek batez ere; ikustekoa izan zen azkeneko norgehiagoka, teknikoki ikaragarria”, adierazi du Ostadar SKTko saskibaloialorren buru Endika



Maila altuko saskibaloiaz gozatu zuten herritarrek abenduko zubian zehar.

Marrahik. “Emozioa handitzen joan da partidua jokatu ahal; lehenengoetako emaitzak zabalagoak izan ziren eta azkeneko hiruetan berriz, azkeneko segundora arte ez genuen jakin nork irabaziko zuen. Edozein taldek garaitu zitzakeen besteak; horrek du xarma gehien”.

Honakoak izan dira emaitzak: Euskadi 49-69 Gaztela-Leon, Madril 58-45 Galizia, Euskadi 41-65 Madril, Gaztela-Leon 48-46 Galizia, Euskadi 55-58 Galizia eta Madril 60-59 Gaztela-Leon.

Etorkizuneko izarrak
Aurreko asteburuko ekitaldieren dimentsioa nabarmendu du Marrahik: “Beharbada ez gara jabe bi egun hauetan kantxan ikusi ditugun jokalarien mailaz; Espainiako selek-

zioarekin jokatu dute batzuk eta dozena erdi bat seguru asko profesional izatera iritsiko da”.

Bestalde, aipatu du “pikkanaka” lortzen ari direla gisa horretako ekitaldiak antolatu eta herrian saskibaloia sustatzea. “Betiko hesiak jartzen dizkigute oraindik, horiek gainditu behar ditugu lehenbizi. Horretarako ari gara lanean”.

Aitor Anabitarte Asturiasen
Bestalde, Aitor Anabitarte herritarra Asturiasen izan zen asteburuan Euskadiko selekzioarekin, gizonezko infantilen lagunarteko txapelketa jokatzeko. Jokatutako hiru norgehiagokak irabazi zituen Euskadik: 67-45 Asturias, 53-70 Galiziar eta 51-65 Gaztela-Leoni. Lehenengoz aritu da herritarra Euskadirekin.

IGERIKETA

Larunbata 12
Elorsoro kiroldegia, Oiartzun, 16:00etan
Buruntzaldea IKTko igerilari benjaminak X. San Esteban sarian ariko dira.

Usabal kiroldegia, Tolosa, 16:00etan
Buruntzaldea IKTko igerilari alebinek XVI. Paco Sanchez saria jokatu dute.

ARETO-FUTBOLA
Herriko areto-futbol txapelketako 13. jardunaldia.

Ostirala 11
Michelingo kirol gunea, 19:45ean
Txoko - Indaux
Michelingo kirol gunea, 20:45ean
Urdaneta HK - Viña del Mar

Larunbata 12
Michelingo kirol gunea, 9:15ean
Izkiña - Also

Michelingo kirol gunea, 10:15ean
Trumoi - TSST
Michelingo kirol gunea, 11:15ean
Ilargi - Kattagorri Insausti
Michelingo kirol gunea, 12:15ean
Reformas Lagunak - El Punto

Igandea 13
Landako kiroldegia, Durango, 12:00etan
Sasikoa Durango - Ostadar Antonio Nazional Ligako III. maila, 10. jardunaldia.

SASKIBALOIA

Larunbata 12
Kiroldegia, 16:00etan
Ostadar SKT - Soralue Bergara
Errendimenduko kadete neskak, 11. jardunaldia.

Kiroldegia, 18:00etan
Ostadar SKT - Askatuak
Partizipazioko junior neskak, 10. jardunaldia.

Igandea 13
Kiroldegia, 11:00etan
Ostadar SKT - Mutriku
Gizonezko seniorren 3. probintziala, 10. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 12
Michelin, 12:10ean
Beltzak Gure Etxea - La Unica RT
16 urtez azpikoen liga.

Michelin, 13:30ean
Beltzak Gure Etxea - La Unica RT
18 urtez azpikoen liga.

Lakua, Gasteiz, 15:30ean
Gaztedi - Lavie ZRT-Beltzak
Seniorren Euskal Ligako II. maila, 7. jardunaldia.

UPNA, Iruñea, 16:00etan
La Unica RT - Babyauto Zarautz
Seniorren Ohorezko B maila, 11. jardunaldia.

— Agenda —

Ostirala, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxea



Maitasuna eta barroteak

Lauka teatro taldeak Xabier Mendigurenen "Amodioaren ziegak" lana moldatu du. Honetan Aitor presoaren eta Miren, bere bikotearen aurrez aurreko bisitak ezagutu ahal dira. Konturatu gabe pasatzen da denbora hauetan. Gainera, gorroto dituen hark, gorroto duten hark, prestatu die hitzordua. Maitasunaren hari-rik hauskorrenak eta indartsuenak, age-rian gelditzen dira egoera honen aurrean. Kukuka antzerki eta dantza eskolak Uda-laren laguntzaz antzerki amateurra susta-tzeko ekimena. Sarrera 5 euro.

Lasarte-Oria

Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Ostirala, 19:00etan

Neskur Pagola txalapartaria, Brigitarren komentuko Ahizpa Afrikarrak, Xumela Abesbatza eta Semblante Rociero koruak emanaldia eskainiko dute Ben Younech (Tanger-Ceuta) proiektuaren alde. 0 ilara 5 euro. Andatzazpi elizba-rrutiko Misio taldeak antolatutako ekintza.

MANUEL LEKUONA

Asteazkena 16, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasle eta irakas-leek Gabonetako kontzertua eskainiko dute.

Mahai-ingurua

MANUEL LEKUONA

Larunbata, 11:30ean

Xirimiri Elkarteak antolatuta, Katalu-niako alderdi nazionalistetako kideek "Helburua independentzia: zein da bidea?" mahai-ingurua egingo dute.

Zinea

MANUEL LEKUONA

Larunbata, 20:00etan

James Bond espioiaren film berria "S-pectre" eskainiko da. Sarrera 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:00etan

"Marko Makako" animaziozko filma

ikusgai izango da haurren zinema ata-lean. Sarrera 3,80 euro. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 19:30ean

Larunbatean zinemara hurbildu ezin diren herritarrek, "Spectre" ikusteko aukera berria izango dute. Sarrera 5,50 euro.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO GUNEA

Abenduaren 3tik 18ra, 17:30etik 19:30era.

Jalgune elkartearen "Elkar sentitu eta emozioak handitu!" erakusketa ikus-gai izango da. Urritasuna duten per-tsonen nazioarteko egunaren harira.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA

Asteartea 15, 18:00etan

Ipuin-kontalari saioa Pello Añorgarekin haur liburutegian. Sarrera doan da. 4 eta 5 urtetako haurrei zuzendua.

Usurbil

Jaialdia

Larunbata

2. "Dilistak eta anabasa" jaialdia anto-latu da. Ekitaldi honetan Hardcore -punk zaratari eta lentejei gorazarrea egingo zaie.

12:00etan, Lenteja txapelketa fron-toian.

Ondoren, probatzaileek sari banaketa egingo dute bertso bidez eta bazkari herrikoia egingo da prestatutakoare-kin.

Arratsaldean, sorpresak.

20:00etatik aurrera, kontzertua Usur-bilgo Gaztetxean:

- NO HUMAN EXISTENCE (Grindc-rust, Bourdeaux).
- RAS (Grindcore masters, Tolosa).
- HAGINAK (Hc, Orduña).
- RAZA ODIADA (D-beat, Bartzelona).
- BATAËLLA (Crust'n'roll, Salamanka).
- NO RETORNO (Hc, Zaratazarautz).
- SUB RATS (Crust, Portugalete).
- REALIDAD (Hc radikal, Arnedo).

Astigarraga

Musika

ANDRA MARI ELIZA

Larunbata, 19:30ean

Lidia Insaustik "Evening prayer" gospel emanaldia eskainiko du. Doan.

— Herritarren txokoa —

Lasartearra elkarteko loteria

Lasartearra elkarateak jakinarazi du aurtengo gabonetako loteria, 57.898 zenbakia, bazkideen eskura dagoela.

Eskutitza

Lasarte-Oria eta Andoain bitarteko bidegorri proposamena errepide nagusitik

Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatza 2015-1016 ikas-turtean dituen ekimenei aurre egiteko lanean ari da dagoeneko. Hala ere, 15-55 urte bitarteko herritarrak ani-matu nahi ditu abesbatzera gerturatu eta parte hartzera. Astelehen eta ostegun guztietan 20:00etatik 21:30era entsaiatzen du abesbatzak Arantzazuko Amaren Eliza azpiko lokalean, Zumaburun.

Informazio gehiago jasotzeko idatzi info@albokaabesbatza.com-era.

Donostialdeko Zatikako Lurralde Planak Lasarte-Oria eta Andoain bitarteko bide-gorri berri bat aurreikusten du. Bidegorri berriak A-1 errepide nagusiak egiten duen bide bera egingo luke, Buruntzako maldara arrimatuta. Bidegorri hori Pla-zaolako bidegorritik independente izan-go litzateke. Izan ere, Planak Plazaolako bidegorriari ere eusten dio. (Gogora dezagun, bide batez, Plazaolako bide-gorria aspaldi-aspalditik barregorrien edo txanpinoien tunelean blokeatuta dagoela.)

Bada, Lurralde Planak zirriborratzen duen bidegorri hau guztiz bat dator Eguzkitik behin baino gehiagotan adie-razi dugun honako kezka honekin: Buruntzaldeko herrien arteko lotura peatonal eta ziklistak ez dira behar bezalakoak, eta askotan esistitu ere ez dira esistitzen. Are gehiago, egoera arin-tzeko gaur egun dauden proiektuak gauzatuko balira ere, motz geratuko lirateke. Bestela esanda: gure ustez, gaur egun dauden proiektuak ez dira nahi-koa gabeziak behar bezala konpontze-ko. Eta Lurralde Plana egin dutenak iritzi

berekoak direla ondorioztatu daiteke. Izan ere, proposatzen duten bidegorri berriak nabarmen zuzentzen du Foru Aldundiak 2013an onartu zuen Gipuz-koako Bizikleta Bideen Plana.

Orain dela hilabete batzuk, Errekal-de eta Lasarte bitarteko bidegorria inau-guratu zenean ere, aurrerapen handia zela esan genuen, Donostia eta Lasarte-ren arteko urtetako blokeo anormal eta ulertezin bati amaiera ematen ziolako, baina ez zela inolaz ere nahikoa. Ez soi-lik Usurbil edota Andoainetik loturek konpondu gabe jarraitzen dutelako, bai-zik eta, gure ustez, Lasartek Donostiare-kin behar duen lotura peatonal eta ziklista asetzeko bidegorri bat motz geratzen delako.

Horregatik Lasarte-Oriako Udalari edota Udalbatza osatzen duten taldeei eskatu genien Errekalde-Lasarte bidego-rri berria udal bidegorriarekin azkar lotzeko gestioak egiteko (oraindik 200 bat metro falta dira), baina, horrez gain, "Lasarte-Oria inguruko herrie-kin oinez eta bizikletaz modu normalean, hau da modu zuzen eta seguruan, lotzeko

aukerei buruzko azterketa lehenbai-lehen abiatzeko".

Donostialdeko Zatikako Lurralde Planak Lasarte-Oria eta Andoain bitar-tean aurreikusten duen bidegorri berrira-ko ez dago eperik, ezta aurrekonturik ere. Beraz, gaur gaurkoz, proiektua mapa baten gainean egindako marra bat baino ez da. Hala ere, guk dakigula, bidegorri berri bat errepide nagusiko zati honetatik barrena egitea egokia dela adierazten duen lehen dokumentu ofi-ziala da. Eta, gainera, dokumentu honen maila ez da nolanahikoa, teoriar behin-tzat. Gure ustez, Lurralde Planak bide-gorri horren aukera aipatzea bera gure eskaera egokia dela berrestera dator. Are gehiago kontuan izanda Plana ezin dela inolaz ere "ekologistatzat" jo.

Gauzak horrela, Lurralde Planak egi-ten duen bidegorri berriaren proposa-mena helduleku bat izan daiteke Udalak gaiari gure ustez merezi duen bezala hel diezaion.

Eguzki talde ekologista

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858

txintzarri@txintzarri.info

Sancho eta Yolanda irabazle Pintxo Ibilbidean

3.000 pintxo inguru saldu ziren hiru egunetan zehar

III. Pintxo Ibilbideak baditu sarituak: Martin Berasategi saria irabazi du Sancho tabernak eta, herritarren iritziz, Yolanda tabernakoek prestatu dute pintxo goxoenak.



Sari ekitaldira bertaratutakoek argazkia atera zuten denek elkarrekin, bi taberna saritueto sukaldariak erdian zirela.

Txanpinoi barrubetea eta hiru saltsadun masail iberikoko alberjinia hostopila izan dira III. Pintxo Ibilbideko jaki sarituak. Egi-leak Sancho eta Yolanda

tabernak, hurrenez hurren. Lehenengoak aurten estreina-tutako Martin Berasategi saria irabazi du, eta herritarrena bigarrenak. Asun Apezetxea eta Luis Mitxelena sukaldariak

jaso zituzten garaikurrak abenduaren 4an egin zen sari banaketan.

Antolatzaileek nabarmendu zuten 3.000 pintxo inguru saldu direla aurten.

Gabonetako argiteria

Pasa den ostiraletik itxuraldatu egin dira herriko kaleak, iluntzean batez ere, martxan baitago jada gabonetako argiteria.

Aterpea merkatarien elkar-teko lehendakari Ramon Ormazabalek aipatu zuen oso garrantzitsuak direla argiak ostalarientzat, salmentak igo-tzen laguntzen duelako.

SANTA TERESA IKASTETXEA

0-18 URTE BITARTEKO HEZIKETA

Tel. 943 21 17 64

www.santateresaikastetxea.com




ATE IREKIAK:

abenduaren 15ean,
9.30-11.00 eta 15.30-17.00



Kalitatezko hezkuntzaren aldeko apustua egiten dugu



ARGIAren alde

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL)

**ABENDUAK 19,
LARUNBATA**

Saio bakarra: 17:00etan

Sarrerak:

Aurretik 7 euro

Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Lan
berriaren
aurkezpen
emanaldia

Harremanetarako:

© 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

